Hirigintza II-ko azalpena (tailer bateratua + arruntaren hasiera)

Tailer bateratua Zizurkilen (Gipuzkoa) garatuko da. Ikasleek, hirukoteka edo launaka, «A.I.U.4 Paper-lantegia» izeneko arearako Hiri Antolakuntzarako Plan Berezi bat proposatuko dute. Esandako hiri-area, ia 3.8 ha-ko azalerakoa, bizitegi-erabilerarako birkalifikatuko den industriagune bat da. Etxebizitza-erabilera nagusi edukiko duen jarduera-eremuaren berrantolakuntza bat proposatuko da, hortaz, indarrean dagoen legedia kontuan hartuz (hirigintza-estandarrak, zor-eremuak, irisgarritasuna, etab).



Hirigintza-eraikigarritasuna edo eraikigarritasun irabazizkoa (ekipamendu publikoak alde batera utzita) 0,75 m^2(s)/m^2(l)-koa izango da. Erabilera-nahasketa sustatzeko, etxebizitza-eraikigarritasuna ez da hirigintza-eraikigarritasun guztiaren % 75 baino handiagoa izango. Praktika bi fasetan garatuko da:

1.- Lekuaren azterketa eta haren egungo egoeraren diagnostikoa

1.1.- Ingurune fisiko-naturalari buruzko informazioa: maldak (kotak, sekzioak), eguzkiztatzea, uholdegarritasuna, landaredia…

1.2.- Hirigintza-informazioa: gaur egun dauden partzelak, egungo lurzoruaren klasifikazioa eta kalifikazioa, ingurune gertuko hiri-bilbeak, sistema orokorrak eta haien zor-eremuak…

2.- Hiri Antolakuntzarako Plan Bereziaren aurrerapena: arearen mugaketa eta lurzoruaren kalifikazio xeherako proposamena (bide-komunikaziorako sistema, espazio libreen sistema, espazio partzelatuak…)

Bi faseak «Hirigintza II. Hiri izatea» irakasgaiko tailer arruntetako orduetan garatuko dira, baita tailer bateratukoaren 2. eguneko (2013ko otsailaren 27a) lehen 3 orduetan ere (azken 2 orduetan aurkezpen publikoak egingo dira).

Bi faseetako ematea batera egingo da, Hirigintza II-ko hurrengo eskola teorikoaren hasieran (martxoaren 4an), bai digitalki (CDan) bai paperean (din A-1 planoak, din A-4ra tolestuta).

Donostian, 2013ko urtarrilaren 25ean

Hirigintza II-ko irakasleak